

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURAREN SAILA

Hezkuntza Zerbitzua

15. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzea –Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako laguntza, 2019-2020 ikasturtea

2019ko azaroaren 22an egindako ohiko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 15. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzea — Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako laguntza, 2019-2020 ikasturtea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta 45. artikuluko b) puntuan xedatutakoaren ildotik, hau argitaratzen da, denek jakin dezaten:

15. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzeari onespena ematea – Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako laguntzak, 2019-2020 ikasturtea.

2019ko ekainaren 17an argitaratu ziren, ALHAOn, Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako laguntzen (15. ildo) deialdi publikoa —2019-2020 ikasturtea— eta berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 24an egindako ohiko bilkuran onetsiak. Deialdiaren laburpena 2019ko ekainaren 17ko ALHAOn argitaratu zen, eta hortik aurrera hasi zen kontatzen eskabideak aurkezteko epea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Gasteizko Udalaren dirulaguntza eta laguntzei buruzko ordenantzan xedatutakoa aplikatuz, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko abenduaren 28an egindako bilkuran onetsi zituen 2019 urterako Gasteizko Udalaren dirulaguntza-deialdiak arautzeko oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorritik, balorazio-organoa bildu da, eta deialdi horretara aurkeztu diren eskabideei dirulaguntza eman edo ukatzeko proposamena egin du.

Kontuan izanik indarrean dagoen gastuen aurrekontuan nahikoa zuzkidura badagoela 2019ko udal aurrekontuko Hezkuntza eta Kultura Sailaren 2319 02 3261 48108 partidan, Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzarrak eskumenak eskuordetzeko 2019ko ekainaren 21ean hartutako erabakia dela medio, erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

1. I. eranskinean zerrendatzen diren laguntzak onetsi eta ematea bertan adierazten diren ikastetxe onuradunei, 2019-2020 ikasturterako —bakoitzari adierazten den zenbatekoa esleituz—, guztira 11.283,96 euro, Hezkuntza eta Kulturaren Sailaren 2319 02 3261 48108 partidaren kontura. Dirulaguntzaren zenbatekoa bi zatitan ordainduko da: lehen ordainketa, 2019ko udal aurrekontuaren kontura, eta bigarrena, 2020ko udal aurrekontuaren kontura, baldin eta kreditu egokia eta nahikoa badago.

2. IES Badaia BHI-ri laguntza ukatzea, deialdiaren baldintzak ez betetzeagatik eta konkretuki, Iruña Okako udalerrikoa izateagatik, eta ez Gasteizkoa.

Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen duenez, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik; horren berariazko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Gasteizen, 2019ko azaroaren 22an

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

I. eranskina. Ikastetxe onuradunak eta emandako diru-laguntza

Ikastetxea	Diru-laguntza	2019ko ordainketa	2020ko ordainketa
CPEI NCLIC HHIP	69,41 euro	23,13 euro	46,28 euro
CEIP Arantzabela ikastola HLHI	372,46 euro	124,14 euro	248,32 euro
IES Lakua BHI	565,24 euro	188,40 euro	376,84 euro
CEIP Abetxuko ikastola HLHI	269,85 euro	89,94 euro	179,91 euro
CEIP Odon de Apraiz HLHI	276,74 euro	92,24 euro	184,50 euro
CPEIPS Armentia ikastola HLBHIP	301,96 euro	100,64 euro	201,32 euro
CPEIPS Inmaculada Concepción HLBHIP	196,55 euro	65,51 euro	131,04 euro
CPEIPS Niño Jesús HLBHIP	250,70 euro	83,56 euro	167,14 euro
CEIP Ángel Ganivet-Sta. Lucía HLHI	438,59 euro	146,18 euro	292,41 euro
CEIP Lakuabizkarra HLHI	355,31 euro	118,42 euro	236,89 euro
CPEIPS Nuestra Señora de las Mercedes HLBHIP	382,51 euro	127,49 euro	255,02 euro
CPEIPS Sagrado Corazón Carmelitas HLBHIP	563,68 euro	187,88 euro	375,80 euro
CPEIPS Padre Raimuno Olabide HLBHIP	920,09 euro	306,67 euro	613,42 euro
CEIP Miguel de Cervantes HLHI	535,18 euro	178,38 euro	356,80 euro
CPI Sansomendi IPI	752,63 euro	250,86 euro	501,77 euro
CEIP Umandi ikastola HLHI	495,81 euro	165,26 euro	330,55 euro
CPEIPS Calasanz HLBHIP	372,85 euro	124,27 euro	248,58 euro
CEIP Judimendi HLHI	171,60 euro	57,20 euro	114,40 euro
CEIP Mariturri HLHI	512,55 euro	170,84 euro	341,71 euro
CEIP Aranbizkarra ikastola HLHI	602,56 euro	200,83 euro	401,73 euro
CPI Samaniego IPI	913,70 euro	304,54 euro	609,16 euro
CEIP Divino Maestro-María de Maeztu HLHI	450,46 euro	150,14 euro	300,32 euro
CEIP Adurtza ikastola HLHI	414,41 euro	138,13 euro	276,28 euro
CEIP Luis Dorao HLHI	456,15 euro	152,04 euro	304,11 euro
CPEIPS Santa María-Marianistas HLBHIP	642,97 euro	214,30 euro	428,67 euro
Guztira	11.283,96 euro	3.760,99 euro	7.522,97 euro